



# ZUBILLAGA DK. ZENTROA ULIAZPI

## Zubillaga Dk. Zentroa

Zubillaga Dk. Zentroa, Bergarako erdigunean kokatua, 2002. urtean inauguratu zuten. Orduz geroztik, gure eginkizuna adimen-urritasuna eta laguntza-behar handiak dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetuko duten zerbitzuak eskaini daitezela bermatzea da.

Horretarako arreta integrala eta pertsonalizatua eskaintzen dugu, gure erabiltzaileak eta beren senitartekoak pozik egon daitezela lortu nahian.

Gure Etxebizitza eta Eguneko Zentroa Toki Ederren daude, Bergarako erdigunean, eta horrek erraztu egiten digu gure erkidegoko bizilagunekin elkarbizitzan txertatzea.

Zubillaga Dk. Zentroan, halaber, langile-talde bat dugu, honela osatua: Eguneko Zentroko zaintzaileak, etxebizitzako zaintzaileak, fisioterapeuta, musikoterapeuta, gidaria eta laguntzailea, gimnasia eta igerileku egokituako monitorea, sukaldaria, garbiketako langileak eta zentroko arduraduna, eta guztiak ere elkarrekin lan egiten dute erabiltzaileen eta beren senitartekoen premia eta eskakizunei erantzuteko eta irtenbide bat bilatzeko xedez.

Eguneroko jarduerak burutzeko, zentroak 9 plazako ibilgailu egokitu propio bat du, erabiltzaileen mugikortasuna eta garraioa ahalbidetzen eta errazten duena.

## ZUBILLAGA DK. ZUBILLAGA

TOKI EDER KALEA, 1 ZK. BEHEA  
20.570 Bergara •

Gipuzkoa

Telefonoa: 943 769 787

Faxa: 943 769 787

Email: [zubillaga@gipuzkoa.net](mailto:zubillaga@gipuzkoa.net)

ULIAZPI





# ZUBILLAGA. DK. ZENTROA. ULIAZPI

## Eskaintako zerbitzuak

### Etxebizitza

Zubillaga Dk. Zentroko etxebizitza Toki Ederreko bizilagunen erkidegoan txertatua dago 10 lagunen zako gaitasuna du, baina plaza bat Uliazpiko artatuen familiek eduki ditzaketen atsedeen-premiei erantzun ahal izateko gordea dago.

Etxebizitza honen helburua bertan bizi diren pertsonentzat benetako etxe bat izatea da, tratu guztiz pertsonala eta familiarra eskainiz.

### Eguneko arreta

Eguneko Zentroa 10.00etatik 17.00etara eguneko arreta eskaintzeko pentsatua dago (oporrak izaten ditu Eguberrietan, Aste Santuan eta abuztuan).

Garraio-zerbitzua du erabiltzaileak erdigunera joan daitezen, baita jangela-zerbitzua ere.

Eguneko Zentroak dituen programen eskaintza oso zabala da, eta kanpoko jarduerak Zentroan bertan egiten direnekin osatzen dira: eskulanak, erlaxazioa, ikus-entzunezkoak eta abar.

BARNEKO JARDUERAK	KANPOKO JARDUERAK
FISIOTERAPIA	GIMNASIA EGOKITUA
MUSIKOTERAPIA	IGERILEKU EGOKITUA
MUGIKORTASUN FISIKOA	HIPIKA
ZENTZUMENEN ESTIMULAZIOA	IBILALDIAK KOMUNITATEAN
AUDIOBISUALAK	TXANGOAK
BIDEO-KONTSOLA: X-BOX	AISIALDIKO IRTEERAK
DANTZA	BALIABIDE KOMUNITARIOAK ERABILTzea
SUKALDARITZA-TAILERRA	
ERLAXAZIOA	
KOMUNIKAZIOA	
ESKULANAK	
MAHAI-JOKOAK	

## EGONALDI LABURRAK EDO ATSEDEN PROGRAMA

Hain zuzen ere, zerbitzu honen bitartez laguntza eman nahi zaie hainbat arrazoirengatik beren senitarterako zaindu ezin dezaketen familiei edo etengabeko zaintza-jardueratik atsedeen hartzeko beharra dutenei.

Zubillaga Dk. Zentroan atsedeen-plaza bat dago, baina Uliazpin badaude beste plaza batzuk ere, familien eskaerari erantzun ahal izateko, beharrezkoa den kasuetan.

